

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

121

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 23koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko uztailaren 5eko Aginduan iragarritako dirulaguntzak, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek 2022ko ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan.

2022ko uztailaren 27an, Hezkuntzako sailburuaren agindua argitaratu zen. Haren bidez, dirulaguntzak iragarri ziren Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek 2022ko ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan.

Aginduaren xedea da Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten enpresa-erakundeak eta sindikatuak dirulaguntzak emateko deialdia egitea, beren jarduera-eremuan konpetentzia profesionalak ebaluatzen eta egiaztatzen prozedurekin zerikusia duten jarduerak sustatzaileak eta eragileak garatzeko, baita horiek behar bezala gauzatzeko behar diren koordinazio- eta kudeaketa-lanak egiteko ere.

Deialdi honen bidez iragartzen diren dirulaguntzen zenbatekoa laurehun eta hirurogeita zortzi mila eurokoa (468.000,00) da.

Zenbatekoari eta emateko prozedurari buruzko 12.1 artikulua ezartzen du dirulaguntzak emateko lehia bidezko konkurrentzia-prozedura erabiliko dela. Horretarako, aurkeztutako eskabide guztiak elkarrekin alderatuko dira, baina betiere 13. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan harturik, 1etik 10erako puntuazioarekin.

Laguntzak esleitzeko muga 12. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoa izango da, eskura dagoen kreditua agortu arte; eta gutxienez 5 puntu lortu eta aipatutako irizpideak ezarritako balorazio-irizpideak hobereena lortu dutenei emango zaie. Dena dela, 5 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskari guztietatik pertsona bat kontratatzen/esleitzen laguntza lortuko dute, eta bigarren eta hirugarren pertsona kontratatzen/esleitzen dirulaguntza-lehiaketako arauak ezarritako dira.

Era berean, aginduaren 12.2 artikulua ezartzen duenez, diruz lagundu daitezkeen jardueretarako berariaz kontratatutako edo eskusiboki esleitutako pertsona bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa kontratatzen/esleitzen aurreikusitako dataren eta jarduerak amaitzeko eskabidean aurreikusi eta adierazitako dataren (II. eranskina) arabera finkatuko da. Erakunde onuradun bakoitzak diruz lagundu daitezkeen hiru pertsonaren gastuen zenbatekoa jaso ahal izango du eta eskusibotasunez kontratatutako/esleitutako pertsona bakoitzeko dirulaguntza ezingo da izan urteko 52.000 euroren zenbateko proportzionala baino handiagoa.

11. artikuluan arabera, balorazio-batzorde batek baloratuko ditu eskabideak, Aginduaren 13. artikuluan ezarritako irizpideen arabera. Plangintza eta Antolaketa zuzendaria izango da presidentea, eta honako hauek osatuko dute: Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduradunak, lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari batek eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikari batek. Azken horrek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

2022ko urriaren 18an, Lanbide Heziketako sailburuordearen 2022ko urriaren 4ko Ebazpena argitaratu zen EHAA. Ebazpen horren bidez, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako Lanbide Heziketako Zerbitzuko arduraduna izendatzen da, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkari gisa duten gizarte-eragileek 2022ko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak garatzeko dirulaguntzak emango dituen Balorazio Batzordeko kide izan dadin.

Aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak behin-behineko ebazpen-proposamena egin zuen, behar bezala arrazoituta eta 2022ko urriaren 18an egindako bileraren aktaren I. eranskinean laburtuta. Proposamen hori bitarteko elektronikoen bidez jakinarazi zitzaion onuradunei 2022ko urriaren 25ean, eta, era berean, 10 egun naturaleko epea eman zitzaion, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, egokitutako jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Jakinarazpena egin eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, Balorazio Batzordeak prozeduraren ebazpen-proposamena onartu zuen, eta Plangintza eta Antolaketa Zuzendariak, organo izapidegile gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari igorri zion, 2022ko azaroaren 7ko aktan jasota dagoen bezala.

Lanbide Heziketako sailburuordeari proposamena egin ondoren, eta aginduaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, sailburuordeari berari dagokio aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena ematea eta erakunde interesdunei jakinaraztea. Horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea egongo da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkari gisa duten gizarte-eragileek kompetentzia profesionalak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurari lotutako sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten dirulaguntzak ematea eranskinean zerrendatzen diren erakunde onuradunei, betiere 13. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideei eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko uztailaren 5eko Aginduaren 12. artikuluan ezarritako mugari jarraikiz, Balorazio Batzordeak proposatuta, eta eranskin horretan erakunde bakoitzerako zehazten diren zenbatekoekin.

2. artikulua.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako baldintzetarako, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2022ko uztailaren 5eko Aginduan xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakioke Hezkuntzako sailburuari, hila-beteko epean, ebazpen hau erakunde onuradunei jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 23a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

ERANSKINA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO EBAZPENA, LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL KONTSEILUAN ORDEZKARITZA DUTEN GIZARTE-ERAGILEEK, BEREN JARDUERA-EREMUAN, 2022KO EKITALDIAN KONPETENTZIA PROFESIONALAK EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO PROZEDURAK SUSTATU ETA BULTZATZEKO JARDUERAK GARA DITZATEN

		Jarduera-planaren balorazioa (0-10 puntu)					
Zk.	IFK	Erakunde eskatzailea	Helburuen garrantzia eta ekintza zehatzak jarduera-planean egokitzea (4 puntu gehienez)	Jarduera-plana hedatu eta egiteko egitura eta metodologia egokitzea (3,5 puntu gehienez)	Jarraipen-adierazleen egokitasuna eta jarduera-planaren ebaluazioa (2,5 puntu gehienez)	Puntuazioa guztira	Esleitutako zenbatekoa (euro)
1	G48470645	Unión General de Trabajadores de Euskadi	3,5	3,50	2,5	9,50	35.053,17
2	G20054359	ADEGI-Asociación de Empresas de Gipuzkoa	3	3,00	2,5	8,50	12.999,76
3	G48200521	Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi	3	3,00	2	8,00	34.415,25
4	G48089908	Confederación Empresarial de Bizkaia	2,5	3,00	2	7,50	10.539,00
5	G01031418	SEA Empresas Alavesas	2	1,50	1,5	5,00	12.768,00
Esleitutako eskabideen kopurua		5					Total
							105.775,18